HITZARMENA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2025. URTEKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO ABENDUAREN 27KO 3/2024 FORU ARAUAN AURREZ IKUSITAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEN DUENA, ASOC (H)EMEN HER(E)REN ALDE, ELKARTEAK 2025. URTEAN AUKERA PROGRAMAREN ZATI BAT FINANTZATZEKO.

CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PREVISTA EN LA NORMA FORAL 3/2024, DE 27 DE DICIEMBRE, DE PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2025, A FAVOR DE LA ASOC (H)EMEN HER(E), PARA LA FINANCIACIÓN PARCIAL DEL PROGRAMA AUKERA DURANTE EL AÑO 2025.

Bilbon, sinadura elektronikoaren egunean

En Bilbao, en la fecha de la firma electrónica

BILDU DIRA

REUNIDOS

Batetik, Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA andre txit argia, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik.

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA, en su calidad de diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

Eta bestetik, Sara MAULEÓN CARBAYO andrea, ASOC (H)EMEN HER(E) elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa, elkartearen presidentea den aldetik.

De otra, Dña. Sara MAULEÓN CARBAYO, en nombre y representación de la ASOC (H)EMEN HER(E), en su calidad de presidenta de la entidad.

HONELA JARDUN DUTE

INTERVIENEN

Lehenengoak, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera dagozkion ahalmenak erabilita, eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduraren 29ko 131/2020 Foru Dekretuan ezarritakoa garatzeko dagozkion eskumenez baliatuz.

La primera, en su calidad de diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de las facultades que le son propias en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las competencias que le corresponden en desarrollo de lo establecido en el Decreto Foral 131/2020 de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Bigarrenak, 2016an eratu zen ASOC (H)EMEN HER(E) elkartearen presidentea den aldetik, elkartearen estatutuetan xedatutakoarekin bat etorriz.

La segunda, en calidad de presidenta de la ASOC (H)EMEN HER(E), constituida en 2016, a tenor de lo dispuesto en los Estatutos de dicha entidad.

Alderdiek, euren karguen berezko funtzioak betez, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

Ambas partes, en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para otorgar el presente convenio y al efecto,

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren eskumenen artean

PRIMERO.- Que entre las competencias del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko legatu historikoa eta kulturala ikertzea, zaintzea, zabaltzea eta kudeatzea, baita legatu horren balio nagusiak gizarteratzeko eta transmititzeko programak garatzea ere. Horretarako, Bizkaiaren eta lurralde horretako Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko adierazpen artistikoak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du sail honek.

Diputación Foral de Bizkaia figuran investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, así como desarrollar programas destinados a la socialización y a la transmisión de sus valores principales. A tal fin, este departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones artísticas que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

BIGARRENA.- ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteak aparteko interesa duen lana egiten du sortu zenean ezarritako eta bere estatutuetan jasota dauden helburuen barruan. Hau da emakumeen ikusgarritasuna eta lan-harremanak errazteko helburuarekin, emakumeen dinamismoa eta networkinga sustatuz eta sustatuz ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektorean, eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak sustatuz generoaren arloan.

Bere jardueren artean, zinema-proiekzioak, networking-ekitaldiak, hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak/masterclasseak eta zinema-jaialdiak jorratzen dituzte, eta horien artean bereziki nabarmentzen da ikus-entzunezkoen munduan lan egiten duten emakumeei ikusgarritasuna eskaintzeko AUKERA programa.

Hau lortzeko webgune/datu-base bat sortu da, bertan arlo tekniko edo artistikoan lan egiten duten emakumeek euren curriculumak, lan laginak, estekak etab. igotzeko aukera dute doan. Honela, sortzen dituzten profilak ekoizleek edo kontratatzaileek ikusteko aukera izango dute eta hauek zuzenean jarriko dira kontaktuan lan aukerarik balute eta profila egokia bada.

Baina webgunea abiapuntu bat baino ez da; ekitaldi asko antolatzen dira urtean zehar, ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen arloetan lan egiten duten emakumeen jarduera, networkinga eta ikusgarritasuna sustatzeko eta bideratzeko.

2025 urte honetan ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteak burutuko dituen jarduerak honako zerrenda honetan azaltzen direnak izango dira:

- URTARRILA-OTSAILA:

Urtarrila eta otsaila prestatzeko hilabeteak dira. Mentorien datak ezartzen dira, hautaketa-batzordea osatzen da, oinarriak eguneratzen dira eta espazioen alokairuak kudeatzen dira, besteak beste.

SEGUNDO.- Que la ASOC (H)EMEN HER(E) realiza una labor de extraordinario interés, enmarcada en los fines fundacionales para los que fue creada y recogidos en sus estatutos. Esto es, facilitar la visibilidad y las relaciones laborales de las mujeres, impulsando y fomentando el dinamismo y el networking de éstas en el sector audiovisual y de las artes escénicas, promoviendo para ello medidas de acción positiva en materia de género.

Dentro de sus actividades, se abordan las proyecciones de cine, los eventos de *networking*, charlas, talleres, cursos/*masterclasses* y festivales de cine, entre los que destaca singularmente el programa AUKERA ideado para ofrecer visibilidad a las mujeres que trabajan en el mundo audiovisual.

Para ello se ha creado una web/base de datos, para que en ella las mujeres que trabajan en el ámbito técnico o artístico tengan la opción de subir gratuitamente sus currículums, muestras de trabajo, enlaces, etc. De este modo, las y los productores y contratantes pueden ver sus perfiles, y entrar directamente en contacto con ellas, siempre que tengan una oferta de empleo y coincida con el perfil que están buscando.

Pero la web no es más que un punto de partida; se organizan muchos actos a lo largo del año, para fomentar y encauzar la actividad, el *networking* y la visibilidad de las mujeres que trabajan en los ámbitos de lo audiovisual y de las artes escénicas.

Las actividades a desarrollar durante el presente año 2025 por la ASOC (H)EMEN HER(E) son las que a continuación se relacionan:

- ENERO-FEBRERO

Enero y febrero son meses de preparación. Se fijan las fechas de las mentorías, se forma la comisión de selección, se actualizan las bases y se gestionan los alquileres de espacios, entre otros.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Otsailaren amaierarako AUKERA kanpaina prestatzen da 2025 deialdia zabaltzeko.

Para finales de febrero se prepara la campaña AUKERA para difundir la convocatoria 2025.

- MARTXOA

- MARZO

Deialdia ireki da eta jasotako dokumentazioa antolatu da.

Se abre la convocatoria y se organiza la documentación recibida.

- APIRILA

- ABRIL

Hautaketa Batzordeko epaimahaikideek jasotako proiektuak aztertzen dituzte eta bilera egiten dute edizio honetan parte hartuko duten 6 proiektuak erabakitzeko. Apirilaren 30ean emango da AUKERA 2025 programan parte hartuko duten proiektuen berri.

Los miembros del jurado de la Comisión de Selección analizan los proyectos recibidos y se reunen para decidir los 6 proyectos que participarán en esta edición. El 30 de abril se dan a conocer los proyectos que participarán en el programa AUKERA 2025.

- MAIATZA - IRAILA

- MAYO - SEPTIEMBRE

Maiatzetik irailera, gidoiaren (Donostian), zuzendaritzaren (Bilbon) eta ekoizpenaren (Gasteizen) mentoriak egingo dira.

De mayo a septiembre se llevarán a cabo las mentorías de Guión (en Donostia), Dirección (en Bilbao) y Producción (en Vitoria).

URRIA - AZAROA

OCTUBRE - NOVIEMBRE

Ikastaroak burutuko dira:

- Zinema ikuspuntu feministatik. Etxea Betea (Bilbo).
- Dosierrak garatzeko ikastaroa. Online.
- Pitching prestaketarako ikastaroa. Mondragon Unibertsitatea (Bilbo).

Se realizarán los cursos:

- Cine desde un punto de vista feminista. La Casa Llena (Bilbao)
- Curso de desarrollo de dossieres. Online.
- Curso de preparación de pitching. Mondragon Unibertsitatea (Bilbao)

- AZAROA

- NOVIEMBRE

Azaroan Zinebi zinemaldiaren baitan Industriaren eta Epaimahaikideen aurrean pitching saioa egingo dute sei proiektu parte hartzaileek.

En noviembre los seis proyectos participantes realizarán una sesión de pitching ante la Industria y los miembros del Jurado en el marco del festival de cine Zinebi.

AUKERA programaren 2025ko edizioko sariak Zinebiko itxiera galan banatuko dira.

Los premios de la edición 2025 del programa AUKERA se entregarán en la gala de clausura de Zinebi.

2025ean egingo diren jardueren gastuak laurogei mila (80.000,00) euro dira, onuradunak aurkeztu duen aurrekontuaren arabera.

Los gastos a que ascienden las actividades a desarrollar en 2025, según el presupuesto presentado por la beneficiaria, son de ochenta mil (80.000,00) euros.

Entitateak adierazten du ez dagoela sartuta foru-laguntzen onuradun izatea eragozpen duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12 artikuluan daude ezarrita), eta halaber, adierazten du ez

La entidad manifiesta no encontrarse incursa en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. Artikuluaren arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

halla incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

HIRUGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera eta, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen dirulaguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babeseana, hitzarmenen bidez bideratuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan xedatutako dirulaguntza izendunak.

TERCERO.- Que conforme a lo dispuesto en el artículo 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, los convenios serán el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Ildo horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Araua dela bide, eta 0405 G/334104/45100/0000 aurrekontu-partidaren kontura (2024/0062 proiektua), ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteari HAMAR MILA (10.000,00) euroko dirulaguntza izendun bat ematea aurreikusten da, 2025. urtean AUKERA programaren zati bat finantzatzeko.

En este sentido, en virtud de la Norma Foral 3/2024, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025, y con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100/0000, proyecto 2024/0062, se prevé una subvención nominativa, por importe de DIEZ MIL (10.000,00) euros a favor de la ASOC (H)EMEN HER(E) para la financiación parcial del programa AUKERA durante el año 2025.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horren 6.2 artikuluan adierazten denez, haren eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko zein juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago sartuta lege honetan edo nahiz administrazio-arau berezietan arautatuko kontratuen edukien artean.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 quedan excluidos del ámbito de dicha Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, hitzarmen honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este convenio incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Ildo horretatik, haren tramitazioan "generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena" erantsi da, 112/2024 Foru Dekretuaren, azaroaren 14koa, 1. artikuluak aipatzen duena.

En este sentido, en su tramitación se incorpora el «informe de evaluación previa del impacto en función del género» al que hace referencia el artículo 1 del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre.

**LAUGARRENA.-** Aurretik azaldutako helburuarekin, alderdiek Hitzarmen hau onetsi dute. Horren bitartez arautzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauan aurreikusten den dirulaguntza izenduna, ASOC (H)EMEN HER(E) elkartearen alde. Hona hemen hitzarmenaren

**CUARTO.-** Que, con la finalidad expuesta anteriormente, las partes han consensuado el presente convenio, por el que se regula la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 3/2024, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025 a favor de la ASOC (H)EMEN HER(E), a tenor de las siguientes

## ESTIPULAZIOAK

## ESTIPULACIONES

### Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

### Primera.- Objeto del Convenio

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauan jasotako HAMAR MILA (10.000,00) EUROKO dirulaguntza izenduna arautzea, ASOC (H)EMEN HER(E) elkartearen alde (IFZ G75152579) 2025. urtean AUKERA programaren zati bat finantzatzeko.

Es objeto del presente convenio la regulación de la subvención nominativa por importe de DIEZ MIL (10.000,00) euros prevista en la Norma Foral 3/2024, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025 a favor de la ASOC (H)EMEN HER(E) (NIF G75152579), para la financiación parcial del programa AUKERA durante el presente ejercicio 2025.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikuluaren ondorioetarako, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen dirulaguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, onuradunak Aldundiak emandako dirulaguntza honekin batera beste edozein administrazio edo erakunderen laguntza ere jaso dezake hitzarmen honen xedea garatu eta burutzeko.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, la presente subvención foral será compatible con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente convenio.

Hitzarmen honi dagokionez, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira dirulaguntzaren xede den jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat etorri, behar-beharrezkoak izan eta ezarritako epean egiten diren gastuak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

A los efectos del presente convenio se consideran gastos subvencionables, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi

Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hori 2023ko abenduaren 15eko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2831. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea DOUE 2831 el 15 de diciembre de 2023).

Ondorioz, emandako minimis laguntza, guztira, ezin izango da 300.000,00 eurotik gorakoa izan dirulaguntza eman aurreko hiru urteetan, datatik datara zenbatuta.

En consecuencia, la ayuda total de minimis concedida no podrá exceder de 300.000,00 euros en un período de tres años anteriores a la fecha de concesión, computados de fecha a fecha.

Zergak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inoiz izan dirulaguntza jaso duen jarduerаren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, finantzaketa propioa ere kontuan hartuta.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

Bigarrena.- Finantzaketa

Segunda.- Financiación

Bizkaiko Foru Aldundiak partez finantzatuko ditu ASOC (H)EMEN HER(E) elkartearen alde (IFZ G75152579) 2025ean AUKERA programaren zati bat. Horretarako, erakunde horri Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauan aurrekontuko 0405 G/334104/45100/0000 partida, 2024/0062 proiektuaren kargura zainpetuta dagoen HAMAR MILA (10.000) euroko dirulaguntza izenduna emango dio.

La Diputación Foral de Bizkaia contribuye a la financiación parcial del programa AUKERA durante el presente año 2025 por la ASOC (H)EMEN HER(E) (NIF G75152579), mediante el abono a la misma de la subvención nominativa por importe de DIEZ MIL (10.000) euros, consignada en la Norma Foral 3/2024, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025, con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100/0000, proyecto 2024/0062.

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren aurrean dirulaguntza izapidetuko du, ordaindu ahal izateko. Horretarako ez zaio erakunde onuradunari inolako bermerik eskatuko, ez baita ikusten hitzarmen honen bitartez bereganatutako konpromisoak ez betetzeko arriskurik. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, hitzarmen hau sinatzen den unean.

La subvención será tramitada para su abono por parte del Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas en virtud de este convenio. Se abonará en un solo pago a la firma del presente convenio.

Nolanahi ere, Aldundiak betebeharra onartu eta dirulaguntza ordaindu aurretik egiaztatuko du ea ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteak zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen eta laguntza itzultzeko ezartzen duen ebazpen

En todo caso, previo al reconocimiento de la obligación y al abono de esta subvención foral, se comprobará que la ASOC (H)EMEN HER(E) se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no es deudora por resolución de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

baten zordun ez den.

Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, hamar (10) egun balioduneko epealdia emango zaio bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio hori egin ezean Aldundiaren foru dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko zaiola administrazio-ebazpen baten bitartez.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntzaren onuradunak hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

a) Proiektua egin.

b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen erregelamenduko 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak justifikazio-kontua aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa; justifikazio-kontu hori 2026ko martxoaren 31ra arte, hau ere barne, aurkeztu beharko du. Informazio hau jaso beharko du kontu horrek:

1. Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:

a) Eginiko jarduerei egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria. Bete beharreko gastu eta sarreren egoera-orri horrek 1. inprimakiko egiturari erantzun beharko dio.

b) Aurreko a) letran adierazitako gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat egingo da, hartzekoduna, agiri-zenbakia, zenbatekoa eta igorpen- zein ordainketa-eguna jasotzen dituena; 2a, 2b, 2c eta 2d inprimakiko egituraren arabera egingo da zerrenda hori. Justifikazioa egiteko epea amaitzen den datan ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Sarreren egoera-orriko partida bakoitzeko, aurreko a) letran adierazitako diru-sarreren zerrenda

procedencia de reintegro.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días hábiles regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

Tercera.- Justificación de la subvención

La beneficiaria de la subvención se compromete a:

a) Realizar el proyecto.

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, la justificación del proyecto realizado por parte de la beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el día 31 de marzo de 2026 (incluido), de una cuenta justificativa que deberá contener la información que se indica a continuación:

1. Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del formulario 1.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura del formulario 2a, 2b, 2c, y 2d. Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sailkatu bat egingo da (dirulaguntzena eta bestelako sarrerena), zenbatekoa eta jatorria adierazten dituena; 3a eta 3b inprimakiko egituraren arabera egingo da zerrenda hori.

d) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari bakar-bakarrik egotzi ahal zaizkiola c) letran berariaz adierazitako sarrerak.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren b) letran adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.

f) Onuradunak egiaztagiriak aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen berezko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko 29.3 artikulua), salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Hornitzailearen aukeraketa txosten bat justifikatu beharko da, proposamen ekonomiko onena aukeratu ez denean.

g) Fakturen eta ordainketen euskarri diren dokumentuen kopiak aurkeztea.

Formularioarekin batera, adierazitako gastuei dagozkien fakturak eta ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Dokumentazio hori artxibo digital bakar batean bidali behar da, formularioan adierazitako gastuen hurrenkeraren arabera antolatuta, faktura bakoitza eta ordainagiria formularioan adierazitako ordena errespetatuz aurkez daitezen.

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

3. Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen, ikus-entzunezko eta informatikako materialen aleak, baita beste edozein motatako agiri grafikoren aleak ere; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza eman duela.

ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del formulario 3a y 3b.

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Indicación, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público para el contrato menor (art. 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones), salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección del proveedor cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Aportación de copias de las facturas y de los documentos que soportan los pagos.

Junto con el formulario cumplimentado, se deberán presentar las facturas correspondientes a los gastos indicados, así como los justificantes de pago.

Dicha documentación debe enviarse en un único archivo digital, organizado de acuerdo con el orden de los gastos indicado en el formulario, de modo que cada factura y su justificante de pago se presenten respetando el orden en que se hayan indicado en el formulario.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

3. Ejemplares de mano, carteles, fotografías, publicaciones, material audiovisual e informático, así como cualquier otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del programa, debiendo constar en lugar visible en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, seigarren estipulazioaren bat etorrita.

cuyos efectos se insertará en éstos los elementos institucionales de ésta en los términos previstos en la estipulación sexta.

## Laugarrena.- Jarraipen batzordea

Sinatzaileek dituzten betebeharrak eta hitzarmen honen xedea egoki gauzatzeko antolamendu juridikoak ezarritakoak betetzeko, eta jasotako funtsak egoki erabili direla kontrolatzeko, alde biko jarraipen-batzordea eratuko da, kide hauek izango dituena: Kulturako zuzendari nagusia edo berak eskuordetutako pertsona eta Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo berak eskuordetutako pertsona, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteko bi ordezkari, erakundeak berak izendatutakoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22 artikuluak jasotzen duena betez.

Batzorde horren burua Kulturako zuzendari nagusia izango da edo berak eskuordetutako pertsona; bertako idazkaria Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo berak eskuordetutako pertsona izango da.

Batzorde hau hurrengo urteko lehen hiruhilekoan bilduko da, hitzarmenaren azken emaitza ebaluatzeko. Nolanahi ere, hitzarmena indarrean den bitartean, alderdiek nahi beste bilera-deialdi egin ditzakete.

Jarraipen Batzordeari buruz hitzarmenak beren-beregi aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

## Cuarta.- Comisión de Seguimiento

A los efectos de dar cumplimiento a las obligaciones asumidas por las partes suscribientes así como a las impuestas por el ordenamiento jurídico en aras a la correcta ejecución del objeto de este convenio y a la adecuada aplicación de los fondos recibidos, se constituirá una Comisión de Seguimiento bipartita compuesta por la directora general de Cultura o persona en quien delegue, y la jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue por parte de la Diputación Foral de Bizkaia y dos representantes de la ASOC (H)EMEN HER(E) designados por esta, dando cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Dicha Comisión estará presidida por la directora general de Cultura o persona en quien delegue, ocupando su Secretaría la jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue.

La misma se reunirá durante el primer trimestre del año siguiente para evaluar el resultado final de la ejecución del presente convenio, sin perjuicio de que puedan ser convocadas otras reuniones durante el período de vigencia del mismo, a instancias de cualquiera de las dos partes interesadas.

En lo no previsto expresamente en el convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

## Bosgarrena.- Indarraldia

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean bertan, nahiz eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko den atzeraeraginez ondorioak izaten; indarraldia 2025eko abenduaren 31ra arte luzatuko da, dirulaguntzaren gaineko justifikazioari buruzko xedapenei, jarraipen batzordeari eta horren ekonomia-eta finantza-kontrolari dagokienez salbu.

## Quinta.- Vigencia temporal

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se producirán, con carácter retroactivo desde el 1 de enero de 2025, extendiendo su vigencia hasta el 31 de diciembre de este mismo año, salvo en lo relativo a las disposiciones sobre justificación de la subvención, comisión de seguimiento y control económico-financiero de la misma.

## Seigarrena.- Onuradunaren betebeharrak

## Sexta.- Obligaciones de la beneficiaria

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 40LZ-CVW6-CNET-QMTW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteak nahitaez bete behar du Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa.

Halaber, dirulaguntza publiko bat jasotzeak berekin dakar erakunde onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete behar izatea.

Gainera, ASOC (H)EMEN HER(E) elkarteak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa hartzen du; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra jarriko du pankarta, kartel eta hedapenerako gainerako euskarri guztietan Foru Aldundiak proiektu honi emandako babesa agertzeko.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz: «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da ere.

Dirulaguntza honen onuradunak konpromisoa hartzen du, halaber, euskara erabiltzeko diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan. Era berean, liburuxka, kartel edo herritarrei beren jardueraren berri emateko erabilitako beste euskarri guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

Onuradunak betebehar hauek ere izango ditu:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

- Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea,

La ASOC (H)EMEN HER(E) quedará obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Asimismo, la ASOC (H)EMEN HER(E) se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el apoyo foral de este proyecto insertando el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

